

# Turismoak irentsi egingo gaitu

**Xabier Mikel  
Errekondo**

**T**urismoak kezka ugari sortuak ditu. Nagusiki uda partean ditugu jasaten bere albo kalteak, baina Donostia Europako kultur hiriburu izan den 2016az geroztik turismo basatiaren olatuak ez du etenik. Gipuzkoako hiriburuan bereziki etsigarria da egoera, nahiz eta gainontzeko hiriburuetan eta itsasertzeko hirietan ere eragina nabarmena den.

Turismo ereduaren eztabaida pil-pilean da eta Donostiako kaleetan ohikoak bilakatu dira herritarren protestak eta pintaketak, esaterako, *“Tourists go home, refugees welcome”*. Oinarrizko gauza asko daude arriskupean eta neurriak eskatzen zaizkie erakundeei eta arduradun politikoei.

Baina, turismoak lan aukerak eta mozkinak baino ez ote dakartza? Zein prezio-tan, ordea? Gaurko pagotxa ez ote da epe ertain eta luzerako miseria izaneren?

Turismoaren benetako arazoa ez da soilik kaleetako jende andana. Baditu bestelako trabak; desagertzearaino kalte-tzea kultur eredua, euskara, lehengaiak eta lan moldeak eta alokairuak izugarri garestitzea, besteren artean.

Turismo oldeak dakartzan multinazional harrapariek irensteko arriskuan gaude, McDonalds, PizzaQueen... Alde Zaharreko tabernak ere jada erasoak jasaten ari dira eta batzuk jada jabe berrien eskuetan ez dira gauza bera. Berezitasuna galduta, epe ertainean egungo Alde Zaharra galdu egingo da.

Herrialde folkloriko bat gehiago izan nahi ez badugu, kanpotik datorrena bertakoarekin uztargarria izateko behar beste neurri hartu egin behar dira, eta hori soilik bertakoen esku dago.

Dena den, arazoa ez da soilik hemen goa. Bartzelonako hainbat auzotan protesta aktibora jo dute eta bizi kalitatea babesteko beharra aldarrikatzen dute. Agintari batzuk bederen egoera itogarriaren larritasunaz ohartuta neurriak hartzeko prest omen daude.

Hemen bertakoak garenok beste herrialde batera joaten garenean kanpotar turista arduratsuak ote gara?

Turismoaren azaleko “glamourrak” us-te baino ondorio pozoitsuagoak ekar ditzake. •

# Lurretik, itsasotik eta airetik

**Amagoia Mujika  
Telleria**

**A**utobusa erabili zuten lehendabizi, «neskek alua eta mutilek zakila» dutela esateko eta kontrakoa diotenek jendartea engainatu nahi dutela salatzeke. Hazte Oir izena du elkarteak eta beren burua saltzeko duten moduak negargura edo barregura ematen du, daukazun egunaren arabera. Erreparorik gabe aipatzen dituzte askatasuna, gizarite aktiboa, duintasuna, giza eskubideak...

Gorroto ditut gauza bat eta kontrakoa defendatzen dutenek berdin erabil ditzaketan hitzak. Adibidez, askatasuna. Nik ez dut nahi, ezta urrundik ere, Hazte Oir elkarteak saltzen duten askatasunik. Haien mundu ikuskera itxian, ñimiñoan, zahar usainekoan, ilunean, karratuan, es-

tuan... zer-nolako askatasuna kabitzen da? Horregatik ez dut nahi. Bestelakoa amesten dut, pertsonari begietara begiratu eta zoriontasuna besterik opa ez dion askatasun mota hori nahi dut nire inguruan.

Orain airez dator erasoak. Uda partean hegazkin txiki batekin ibiliko omen dira, «mezu harrigarri» bat zabalduz. Hondartzan nagoela ez dut burua goratuko burrunba sumatzen dudanean. Badaezpada. Ondo pasatzera joan eta eguna ozpinduko didate bestela. Zeinek eta transfoboek. Ezta pentsatu ere (ea tentazioari eusten diodan...).

Aurrekoan lagun batek esan zidan Hazte Oir elkarteak kideei gauza bakarra opa diela: etxean eta beren azalean sufri ditzatela transexualitate egoera batek dakar-

tzan kezkek, zalantzak, galderak eta sufri-mendua. Egia esan, akaso horrek lagunduko lieke beren ikuskera zabaltzen eta beste inoren bizitzan alferrikako sufrimendurik ez eragiten. Baina, tamalez, segur aski ez litzateke horrelakorik gertatuko. Segur aski ustez maite duten hori beren mundu ñimiño, itxi, zahar usaineko, ilun, karratu eta estu horretan sarraraziko lukete, sufri-menduetan latzena eraginez; etxekoek eta ustez maite eta babesten zaituzten horiek sortutakoa. Ez diot inori opa horrelakorik, ezta Hazte Oir elkarteak kideen seme-alabei ere.

Segi dezatela berean. Guk ere jarraituko dugu, lurretik, itsasotik eta airetik norbera den bezalakoa zoriontsu izateko bide zabal-zabalak eraikitzen. •